

MARIA INMACULADA IKASTETXEAK LANGILE BAT KALERA BOTA DU

STEE-EILASek iritzi publikoaren aurrean salatu du sindikatuan afiliatua dagoen langile baten bidegabeko kaleratzea. Gertaera hau Donostiako Maria Inmaculada ikastetxean burutu zen joan den martxoaren 2an.

Neurri hau, gainerako irakasleentzako ohartarazpen gisa hartua izan da. Irakasle talde bat -kaleratutako irakaslea tarteko- enpresarengana zuzendu zen idatzi baten bidez zuzendaritzarekin bilera eske, beraien lan baldintzak eta baldintza akademikoak hobetzeko elkarrizketa bidea ireki asmoz.

Oso deigarria da, ikastetxe honek - *Kristau Eskola* patronaleko partaide denak- kaleratzearen bidegabekeria onartuz kalte-ordain handi bat ordaindu izana, bidezko eta duinak diren kontratuekin betetzeko edota, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak (TSJPV), itunpeko irakaskuntzaren esparruan eman berri duen epaiak dioen bezala ordain-sariak euren osotasunean ordaintzeko arazo ekonomikoak argudiatu dituen bitartean.

STEE-EILASek dagokion instantzietara salaketa luzatuko du eta honekin batera Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari esku hartzeko eskatzen dio gertaera diru publikoarekin lagundutako ikastetxe batean gertatu den heinean. Honekin batera, beraien lanpostua kolokan ikusten duten langile taldeak pairatu duen eta pairatzen ari den jazarpenarekiko zaintzaile jarraituko du.

Egoera honen aurrean protesta egiteko, STEE-EILAS sindikatuaren ordezkariak kontzentrazio bat egin dute martxoaren 24an, aipatutako ikastetxearen aurrean.